

## BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

### 6355

*EBAZPENA, 2021eko azaroaren 25ekoa, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburordearena, zeinaren bidez ebazten eta argitaratzen baita udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2021eko ekitaldirako deialdia egiten duen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko irailaren 8ko Aginduan aurreikusitako deialdia.*

2021eko irailaren 13ko EHAA n argitaratu zen (182. zk.) Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko irailaren 8ko Agindua, udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2021eko ekitaldirako deialdia egiten duena.

Eskabideak aurkezteko epea 2021eko urriaren 13an bukatu zen, agindu horren 6.1 artikuluan ezarri zenez. Epe horretan, guztira, 10 eskabide sartu dira (ebazpen honen I. eranskinean daude jasota).

Agindu horren 8.1 artikuluan xedatutakoa dela bide, 2021eko azaroaren 10ean, dagokion balorazio-epaimahaiak eratu zen, hartutako eskaerak aztertu eta egiaztatzeke xedez, kontuan hartuta 9. artikuluan xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa.

Agindu horren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 200.000 euro bideratuko dira dirulaguntza hauek emateko. Bestalde, 15. artikulua zehazten du diruz lagunduko dela dokumentua idazteko laguntza teknikoa kontratatzea dela-eta sortutako gastuen % 90, dokumentu bakoitzerako 20.000 euroko gehieneko muga jarrita (biztanle-kopuruaren arabera zuzentzaileekin), betiere dagoen aurrekontu-kreditua amaitu arte, eta ezin izango dira diruz lagundu ez BEZa ez bestelako zergak.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, 2021eko azaroaren 25ean, 8.3 artikuluan xedatutakoari erreparatuta, sailburuordetza honi aurkeztu zitzaion esleipenerako proposamena, non adierazten den zein eskabide diren dirulaguntza jasotzeko proposatzen direnak, barnean hartuta udal onuraduna, diruz lagun daitekeen proiektua, lortutako puntuazioa eta proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

Deialdia egiteko aginduaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta eta balorazio-epaimahaiak egindako proposamena ikusita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak ematea, 2021eko ekitaldirako, ebazpen honen II. eranskinean adierazitako udalei (bertan aipatzen da emandako zenbatekoa), dokumentua egin dezaten.

Bigarrena.– III. eranskinean jasotako eskabideak ukatzea, bertan adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Deialdia egiteko aginduaren 18. artikuluan adierazitako moduan eta epeetan egingo da dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.

2021eko abenduaren 21a, asteartea

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, eskatzaile guztiei jakinarazteko, aipatutako aginduaren 10. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritz.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 25a.

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordea,  
MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL.

2021eko abenduaren 21a, asteartea

## I. ERANSKINA

## JASOTAKO ESKABIDEAK

Eskatzailea	Dokumentuaren izenburua
Alzaga	Alzagako plan orokorraren genero-eraginari buruzko azterlana idazteko proposamena.
Derio	Incorporación de la perspectiva de género en el PGOU.
Errigoiti	Propuesta para redacción del informe de impacto de género del PGOU de Errigoiti.
Etxebarri	Propuesta técnica para la integración de la perspectiva de género en el planeamiento y el urbanismo del Ayuntamiento de Etxebarri.
Legazpi	Integración de la perspectiva de género en la revisión del PGOU.
Legazpi	Integración de la perspectiva de género en la revisión del PGOU.
Vitoria-Gasteiz	La incorporación de la Perspectiva de Género en la Revisión del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz.
Zaratamo	Ordenanzas de edificación y urbanización sostenible desde la Perspectiva de Género.
Zestoa	Zestoako HAPO-n genero-ikuspegia (hirigintza inklusiboa) txertatzeko lanak.
Zigoitia	Realización de la evaluación de Impacto de género del documento del nuevo PGOU del municipio de Zigoitia que se apruebe inicialmente.

## II. ERANSKINA

## ONARTUTAKO ESKABIDEAK

Udala	Dokumentuaren izenburua	Puntuazioa	Dirulaguntzaren zenbatekoa (euro)
Alzaga	Alzagako plan orokorraren genero-eraginari buruzko azterlana idazteko proposamena.	5,00	3.217,50
Derio	Incorporación de la perspectiva de género en el PGOU.	6,55	9.945,00
Errigoiti	Propuesta para redacción del informe de impacto de género del PGOU de Errigoiti.	5,20	3.895,74
Etxebarri	Propuesta técnica para la integración de la perspectiva de género en el planeamiento y el urbanismo del Ayuntamiento de Etxebarri.	6,20	12.231,00
Vitoria-Gasteiz	La incorporación de la Perspectiva de Género en la Revisión del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz.	6,70	10.620,00
Zaratamo	Ordenanzas de edificación y urbanización sostenible desde la Perspectiva de Género.	6,25	6.401,56
Zestoa	Zestoako HAPO-n genero-ikuspegia (hirigintza inklusiboa) txertatzeko lanak.	6,05	6.615,00
	Guztira		52.925,80

## III. ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKABIDEAK

Udala	Ukatzeko arrazoia
Zigoitiko Udala	Ez da diruz laguntzeko xedea (2021eko irailaren 8ko Aginduaren 1. artikulua).
Legazpiko Udala	Atzera egitea (2021eko irailaren 8ko Aginduaren 7. artikulua).